SEGURTASUN ESKEMA NAZIONALERA

EGOKITZEA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA (ORG.1)

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA

AURKIBIDEA

MANKOMUNITATEAK Informazioaren Segurtasun Politika dokumentuaren bertsio eguneratua argitaratuko du. Informazioaren Segurtasunerako Batzordeak bermatu beharko du langileek politika ezagutzen eta ulertzen dutela, eta Informazioaren Segurtasun Politikaren helburuak lortzeko langile guztien inplikazioa.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

BERRIKUSPENEN KONTROLA

BERTSIOA	ALDAKETEN DESKRIBAPENA	EGINDAKOA
1	Dokumentuen zati bat bat	Orkatz Goenaga Ormazabal Estitxu Lasa Iturrioz
2	Dokumentua berrikustea.	Idoia Arrillaga Aldalur 2025/02/10
3	Dokumentua berrikustea.	Estitxu Lasa Iturrioz 2025/02/20
4	Euskarara Itzulita	Idoia Arrillaga Aldalur 2025/02/26

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

1.- ONETSI ETA INDARREAN JARTZEA

Dokumentu honek Urola Erdiko Mankomunitateko Informazioaren Segurtasun Politika biltzen du (aurrerantzean “Politika” eta “Mankomunitatea”).

Mankomunitateko Informazioaren Segurtasun Batzordeak egin duen dokumentu hau Lehendakariaren Ebazpenez onartuko da; Politika, ebazpena onartzen den egunean sartuko da indarrean, eta MANKOMUNITATEAN ordura arte zegoen informazioaren beste edozein segurtasun-politika indargabetuta geratuko da.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

2.- SARRERA

Dokumentu honen xedea da Informazioaren Segurtasun Politika ezartzea Segurtasunaren Eskema Nazionalak (aurrerantzean, SEN) arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak xedatzen dituen eskakizunen arabera. Hala, informazioaren segurtasuna bermatuko da eta, noski, informazioaren segurtasunaren eta datu pertsonalak babestearen esparruan aplikaziokoak diren legezko, kontratuko eta arauzko betebehar guztiak betetzen direla ziurtatuko da.

MANKOMUNITATEKO Informazioaren Segurtasun Politikaren helburua da informazioren tratamenduak modu seguruan egin daitezen jarraibideak ezartzea eta baimendutako langileek egin ditzaten soilik. Gainera, erakundeko informazioa babestu nahi da, ez galtzeko konfidentzialtasuna, osotasuna, trazabilitatea edo egiazkotasuna, edo ez eragiteko zerbitzuen eskuragarritasunari.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

3.- HELBURUAK ETA ERAKUNDEAREN EGINKIZUNA

MANKOMUNITATEAK, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, herritarren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak ematen ditu; zerbitzu horiek ahalbidetzeko herritarren eta udalen eskura jartzen du tramiteak internetez egitea ("online"). Era berean, MANKOMUNITATEAN eta herritarrengan teknologia berrien erabilera indartu nahi da.

Honako hauek dira, besteak beste, helburu nagusiak:

- Herritarren eta MANKOMUNITATEAREN artean harreman elektronikoa sustatzea.
- Harreman horretan beharrezkoa den konfiantza sortzea.

MANKOMUNITATEA informazio-sistemez baliatzen da esleituta dituen eskumenak gauzatzeko, eta sistema horiek arduraz administratu behar dira, informazioen eta zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, trazabilitatea, egiazkotasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko orduan ustekabeko edo asmo txarreko balizko kalteen aurrean eraginkortasunez eta efizientziaz babesteaz gain.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

4.- IRISMENA

Politika hau aplikagarria eta nahitaez bete beharrekoa izango da Mankomunitateko arlo guztientzat, bere merkataritza-sozietateentzat, eta Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu erlazionatutako edo mendeko organismoentzat eta erakundeentzat ere. Hala, Segurtasun Eskema Nazionalak eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eragindako baliabide eta prozesu guztietan aplikatuko da, bai barnekoetan, bai kanpokoetan, hirugarrenekin zehaztutako kontratuen edo akordioen bidez erakundearekin lotuta egonez gero.

Politika hau erakundeko ekintza plana osatzen duten Mankomunitatearen informazio-sistemei aplikatuko zaie, baldin eta bitarteko elektronikoen bidez eskubideak erabili edo eskakizunak bete behar badira ala bitarteko elektronikoak baliatuta informazioa eskuratu edo administrazio prozedurak egin behar badira, ohiz egoitza elektronikoan edo elkarreragingarritasun-erlazioetan. Halaber, datu pertsonalen tratamenduan aplikatuko da.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

5.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA ETA ARAUDIA

MANKOMUNITATEAREN eginkizunak garatzeko esparruan eta informazioaren segurtasunerako politikaren esparruan arau eta lege hauek osatzen dute arau-esparrua:

- 7/1985 Legea, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- 34/2002 Legea, Informazio Gizartearen Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoari buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, langile publikoaren oinarrizko estatutuari buruzko legearen testu bategina onartzen duena.
- 1553/2005 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, nortasun agiri nazionala eta sinadura elektronikoko ziurtagiriak arautzen dituena.
- 25/2007 Legea, komunikazio elektronikoei eta komunikazioko sare publikoei buruzko datuak kontserbatzen dituena.
- **311/2022 Errege Dekretua, Segurtasunaren Eskema Nazionala duena.**
- 4/2010 Errege Dekretua, administrazio elektronikoaren esparruan elkarreragingarritasun eskema nazionala arautzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

- 11/2022 Lege Orokorra, Telekomunikazioei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 6/2020 Legea, azaroaren 11koa, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi zehatzak arautzen dituena.
- 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, bitarteko elektronikoak erabiliz sektore publikoaren jarduketa eta funtzionamendu araudia onesten duena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 7/1985 Legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 6/2007 Foru Araua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena.

Horrez gain, mankomunitatearen jarduera arautzen duten gainontzeko arauak aplikatuko dira, bai eta datuen, informazioen eta zerbitzuen irisgarritasuna, osotasuna, eskuragarritasuna, egiazkotasuna, konfidentzialtasuna, trazabilitatea eta kontserbazioa ziurtatzera bideratutako bestelakoak, baldin eta oraingoan ere bere eskumenak baliatuz mankomunitateak kudeatzen dituen bitarteko elektronikoen bidez erabiltzen badira. Etorkizunean aurrekoak ordezkatu edo osatzen dituzten ondorengo arauak ere aplikatuko dira.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

6.- OINARRIZKO PRINTZIPIOAK ETA GUTXIENEKO ESKAKIZUNAK

6.1.- Oinarrizko printzipioak

Informazioaren Segurtasun Politika honek, babeserako ondorengo printzipioak ditu oinarri, eta horiek osatzen dituzte erakundeak bere jardunean informazioa babesteko egiten dituen jarduera guztien oinarriak.

Segurtasuna prozesu integral gisa:

Informazioaren segurtasuna prozesu integral baten emaitza da, eta tratamenduan esku hartzen duten honako elementu hauen guztien araberakoa da: giza elementuak, elementu teknikoak, materialak, juridikoak eta antolakuntzari buruzkoak. Hortaz, jarduketa puntualak edo tratamendu bereiziak saihestuko dira.

Informazioaren segurtasun politikak zuzendaritza-maila guztien konpromisoa izango du, informazioaren segurtasuna erakundearen erabaki estrategikoetan txertatu eta koordinatzeko.

Segurtasunari buruzko alderdiak zerbitzuen bizi zikloaren fase guztietan aurrez ikusiko dira, eta lehenetsiz bermatuko da segurtasun hori. Segurtasuna ohiko jardunaren zatitzat joko da, hortaz, informazio sistemen hasierako diseinutik kontuan hartu eta aplikatuko da.

Segurtasuna arriskuetan oinarrituta kudeatzea:

Informazioaren segurtasuna kudeatzeko arriskuen kudeaketari erreparatu behar zaio. Ildo horri eutsiz, xede izan behar da arrisku-mailak gutxieneko maila onargarrien barruan mantentzea eta, horretarako, informazioaren tratamenduarekin zerikusia duten aplikazioen eta zerbitzuen bizi zikloari dagozkion fase guztietan segurtasun-neurri egokiak zabaltzea eta etengabe eguneratzea. Hala, datuen izaeraren, egindako tratamenduen, izan ditzaketen arriskuen eta aplikatutako segurtasun neurrien arteko oreka eta proportzionaltasuna ezarriko da.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Prebentzioa, detekzioa, erantzuna eta kontserbazioa:

Sistemaren segurtasunak kontuan hartu behar ditu prebentzioaren, detekzioaren eta erantzunaren alderdiak ahuleziak minimizatu eta mehatxuak ez gauzatzeko edo, gertatuz gero, informazio sistemetako edo ematen dituzten zerbitzuetako datuei larriki ez eragiteko.

Prebentzio neurriek esposizio-azalera murriztuz mehatxuak gauzatzeko aukera deuseztatu edo murriztuko dute. Bien bitartean, detekzio neurriek balizko zibergorabeherak (ciberincidentes) aurkitzen utziko dute.

Erantzun neurriak behar bezala kudeatuko dira segurtasun gorabeheraren ondoriozko eraginpeko informazioa eta zerbitzuak lehengoratzeko.

Informazio sistemak datuak eta informazioa euskarri elektronikoan kontserbatzen direla bermatuko du, eta informazioaren bizi ziklo guztian zerbitzuak eskura izango ditu.

Defentsa lerroak izatea:

Babes estrategia bat ezarriko da, zeinetan segurtasun geruza anitz eratuko diren. Antolakuntzaren, jardunaren, fisikaren eta logikaren arloko neurriak aintzat hartuko dira, batek huts egiten badu, sistemak multzoan arriskurik ez izateko eta azken inpaktua minimizatzeko.

Etengabeko zaintza eta aldizka ebaluatzea:

Etengabeko zaintzari esker, ezohiko jarduerak edo portaerak detektatuko dira, eta erantzun egokia emango da.

Aktiboen segurtasun egoera etengabe ebaluatzearen ondorioz, bilakaera neurtuko da, eta ahuleziak detektatuko dira, konfigurazioan urritasunak identifikatzeaz gain.

Segurtasun neurriak aldizka ebaluatu eta eguneratuko dira, eta eraginkortasuna arriskuen eta babes sistemen bilakaerari egokituko zaio. Aurrekoaren harira, behar izanez gero, segurtasuna birplanteatuko da.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Erantzukizunak bereiztea, koordinatzea eta elkarlanean jardutea:

Informazio sistemen segurtasunari buruzko erantzukizuna eta informazioaren sistemen ustiaketari buruzko erantzukizuna bereizita egongo dira. **Informazioaren Arduradunak** tratatutako informazioaren segurtasun eskakizunak zehaztuko ditu, **Zerbitzuaren Arduradunak,** berriz, emandako zerbitzuen segurtasun eskakizunak ezarriko ditu, **Segurtasunaren Arduradunak** informazioaren eta zerbitzuen segurtasun eskakizunak asetzeko erabakiak definituko ditu, eskakizunak betetzen direla bermatzeko neurriak ezartzen direla ikuskatuko du eta gai horri buruzko txostena egingo du. Azkenik, **Sistemaren Arduradunaren** erantzukizuna izango da sisteman segurtasuna inplementatzeko modu zehatza garatzea eta eguneroko jarduna ikuskatzea.

Segurtasun prozesuaren barruan eraginpeko guztiek modu koordinatuan jardungo dute segurtasun neurriak aplikatzeko eta kontrolatzeko orduan, eta segurtasunaren arduradunak koordinatuko du. Koordinazioa arloan erakundeko ekimen eta jarduketa guztietara zabalduko da.

6.2.- Gutxieneko eskakizunak

Oinarrizko babes printzipioak honako gutxieneko eskakizun hauek aplikatuta garatuko dira sistema bakoitzean identifikatu diren arriskuen proportzioan.

Segurtasun prozesua antolatzea eta ezartzea:

Informazio sistemen segurtasunak erakundeko kide guztiak nahasiko ditu.

Informazioaren segurtasun politika erakundeko pertsona guztiek ezagutuko dute eta betetzea zainduko duten arduradunak identifikatuko ditu: informazioaren arduraduna, zerbitzuaren arduraduna, segurtasunaren arduraduna, sistemaren arduraduna.

Arriskuak aztertu eta kudeatzea:

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Erakundeak arriskuak kudeatuko ditu eta, horretarako, metodologia ezagunaren bidez sistemaren arriskuak aztertu eta tratatuko ditu.

Arriskuak arindu edo ezabatzeko neurriak justifikatu beharko dira, eta neurrien eta arriskuen arteko proportzionaltasuna egongo da.

Langileak kudeatzea:

Barneko edo kanpoko langileak trebatuta eta informatuta egongo dira segurtasunaren arloko beren betekizunez, eskakizunez eta erantzukizunez. Beren jarduketak eginkizunetan aritzeko onetsi diren segurtasun arau eta prozedura operatiboak aplikatuko ditu, eta ikuskatuko da ezarrita dauden prozedurak jarraitzen direla egiaztatzeko.

Sistemaren erabilera seguruaren esanahia eta irismena segurtasun arau zehatzetan definitu eta adieraziko dira, eta zuzendaritza nagusiak onetsiko ditu, Informazioaren Segurtasun Batzordeak proposatu ostean.

Profesionaltasuna:

Langile adituek arreta eman, ikuskatu eta auditatuko dute informazio sistemen segurtasuna. Hala, bizi zikloaren fase guztietan (plangintza, diseinua, eskurapena, eraikuntza, hedapena, ustiapena, mantentze-lanak, gorabeheren kudeaketa eta desegitea) arituko dira eta horretarako trebatuko zaie.

Erakundeak zehaztuko ditu langile horiek behar dituzten trebakuntza eta esperientzia eskakizunak.

Sarbideak baimendu eta kontrolatzea:

Informazio sistemetan kontrolpean sartuko da, eta behar bezala baimenduta dauden erabiltzaileei, prozesuei, gailuei edo beste informazio sistema batzuei mugatuko zaie beren-beregi baimendutako eginkizunetarako.

Instalazioak babestea:

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Informazio sistemak eta komunikazioen azpiegitura eremu kontrolatuetan egongo dira, eta arriskuaren analisiaren arabera proportziozko sarbide mekanismo egokiak izango dituzte.

Segurtasun produktuak eskuratzea eta segurtasun zerbitzuak kontratatzea:

Erakunderako informazio eta komunikazioko teknologien segurtasun produktuak eskuratu edo segurtasun zerbitzuak kontratatzean, zertarako eskuratzen diren kontuan hartuko da, eta segurtasun sistemaren kategoria eta segurtasun maila zehatzen arabera, helburu horretarako segurtasun funtzionala ziurtatuta dutenak erabiliko dira. Xede horrez, Kriptologiako Zentro Nazionalak ezartzen dituen eskakizunei eta irizpideei erreparatuko zaie.

Gutxieneko pribilegioa:

Informazio sistemak behar bezala jarduteko balizko gutxieneko pribilegioak emanez diseinatuko dira, eta erakundea helburuetara iristeko ezinbesteko funtzionaltasuna eskainiko dute. Horretarako, eragiketa-, administrazio- eta erregistro-funtzioak gutxienekoak dira. Baimendutako bitartekoetatik baino ez baimendutakoek bakarrik garatuko dituztela ziurtatuko da.

Teknologia desberdinei begira, segurtasuna konfiguratzeko gidak aplikatuko dira sistemaren kategorizazioari jarraikiz, eta behar ez diren funtzioak edo desegokiak desaktibatuko dira.

Sistemaren osotasuna eta eguneratzea :

Sisteman edozein elementu fisiko edo logiko sartu edo aldatzeko, aurretik baimen formala ezinbestekoa da.

Une oro sistemen segurtasun egoera ezagutuko da honako arlo hauetan: fabrikatzailearen zehaztapenak, konfigurazioaren urritasunak, ahuleziak eta eragiten dizkieten eguneratzeak. Halaber, gorabeherak modu goiztiarrean detektatuko dira, eta arduraz erreakzionatuko da segurtasun-egoera ikusirik arriskua kudeatzeko.

Gordetako informazioa eta bidean dagoena babesteko:

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Sistemaren segurtasunari buruzko egituran eta antolaketan arreta berezia jarriko zaio gordetako informazioari edo bidean dagoenari, baldin eta segurtasunik eza duten inguruneen bidez (ekipo edo gailu eramangarriak ala mugikorrak, periferikoak, euskarriak eta sare irekiak, etab.) bidali bada. Sistemek ekoitzitako dokumentu elektronikoen kontserbazioa bermatuko da. Euskarri elektronikoan ez dagoen informazio guztia, betiere sistemen informazio elektronikoaren zuzeneko zio edo ondorea bada, maila berean babestuko da.

Interkonektatutako beste informazio-sistema batzuen aurrean prebentzioa:

Informazio sistemaren perimetroa babestuko da, bereziki, sare publikoetara konektatzean. Hala, segurtasun gorabeheren aurrean prebentzioaren, detekzioaren eta erantzunaren zereginak indartuko dira. Sareen bidez beste sistema batzuekin sistema interkonektatuta egotearen ondoriozko arriskuak aztertuko dira, eta haren lotunea kontrolatuko da.

Jarduera erregistratzea eta kode gaiztoa detektatzea:

SENren xedeak eraginpekoen ohorerako, norbanakoaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea berme osoz betetzeko, eta datu pertsonalen babes arauen, laneko arauen eta aplikazioko gainerako xedapenen arabera, erabiltzaileen jarduerak erregistratuko dira, eta bidegabeko ala baimendu gabeko jarduerak monitorizatu, aztertu, ikertu eta dokumentatzeko ezinbestez behar den informazioa atxikiko da. Gainera, une oro jardulea identifikatu ahalko da.

Zorrozki eta proportzioz behar den neurrian, sartu eta irteten diren komunikazioak aztertu ahal izango dira eta informazioaren segurtasun helburuetarako bakarrik, hau da, informazio sistemetara eta sareetara baimenik gabeko sarbidea saihesteko, zerbitzua ukatzen duten erasoak gelditzeko, kode gaiztoa asmo txarrez ez banatzeko eta lehen aipatu diren informazio sareei eta sistemei bestelako kalteak ekiditeko.

Informazio sisteman sartzen den erabiltzaile bakoitza modu bakarrean identifikatu da, une oro sartzeko eskubideak nork jasotzen dituen, zer motako eskubideak dituen eta jarduera zehatza nork egin duen ezagutzeko.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Segurtasun-gorabeherak:

Erakundeak segurtasun gorabeherak kudeatzeko prozedurak izango ditu, eta barne egongo dira detekzio mekanismoak, sailkapen irizpideak, analisi eta ebazpen prozedurak, bai eta alderdi interesdunekin komunikazio bitartekoak eta jarduketen erregistroa ere. Erregistroa sistemaren segurtasuna etengabe hobetzeko erabiliko da.

Segurtasun kopiak egingo dira, eta ohiko bitartekoak galduz gero eragiketek aurrera egiten dutela bermatzeko mekanismoak zehaztu dira.

Jardueraren jarraipena:

Segurtasun-kopiak egingo dira, eta ohiko baliabideak galduz gero jarduerak aurrera jarraituko dutela bermatzeko beharrezko mekanismoak ezarriko dira.

Segurtasun prozesuaren etengabeko hobekuntza:

Etengabe eguneratu eta hobetuko da segurtasunaren prozesu osoa, eta, horretarako, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) segurtasunaren arloan irizpide eta metodo ezagunak aplikatuko dira.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

7.- SEGURTASUNA ANTOLATZEA

Segurtasuna antolatzeko, batetik, sistemen segurtasuna kudeatzearen arloan jarduerak eta erantzukizunak identifikatu eta definituko dira eta, bestetik, haiek eusteko egitura ezarriko da.

Oro har, MANKOMUNITATEKO informazio sistemen erabiltzaileak informazio aktiboen segurtasunaz arduratuko dira, eta, horretarako, informazio sistema horiek behar bezala erabiliko dituzte, betiere lanbide eskudantzien arabera.

Segurtasun gorabeherei hobe erantzuteko, MANKOMUNITATEAK segurtasunaren arloan agintaritza eskudunekin, zerbitzu informatikoen edo komunikazioen hornitzaileekin eta informazio sistemetan segurtasuna sustatzen duten erakunde publiko ala pribatuekin lankidetza harremanak izango ditu.

Bereziki, informazioaren segurtasuna kudeatzea pertsona multzo baten eta batzorde baten berariazko ardura da, eta, xede horrez, eginkizun zehatzak, definituak eta dokumentatuak izango dituzte. Hala ere, oro har, erakundeko pertsona guztien lana da.

7.1.- Lehendakaritza eta segurtasun batzordea

Politika hau oinarritzat hartuta, segurtasunaren antolaketak Informazioaren Segurtasun Batzordearen barneko kudeaketa zehazten du. Kide guztiak identifikatzen ditu, eta zehatz-mehatz definitzen ditu arduradun bakoitzaren eskudantziak eta koordinatzeko nahiz auziak ebazteko mekanismoak.

7.1.1. Lehendakaria:

Informazioaren segurtasunaren arloan, honako eginkizun hauek ditu:

- Mankomunitatearen Informazioaren Segurtasun Politika eta harekiko beste edozein politika sektorial osagarri onestea Segurtasunaren eta Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala eta Datuak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorra betetzeko.
- Informazioaren Segurtasun Batzordeak proposatzen duen antolaketaren garapena onestea.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

- Informazioaren Segurtasun Batzordeko kideak izendatu eta kargutik kentzea.
- Informazioaren segurtasunaren arloan informazioaren Segurtasun Batzordearen proposamenez neurri egokiak hartzea.

7.1.2. Informazioaren Segurtasun Batzordea

Informazioaren Segurtasun Batzordea, Lehendakariaren ebazpen bidez osatua, segurtasuna koordinatzeaz eta bere eskumeneko gaiei buruzko informazioa gobernu organoei emateaz arduratzen da.

Kide anitzeko organo bat da, nortasun juridiko propiorik ez duena. Funtzio osagarriak ditu: aholkularitza, jarraipena, koordinazioa eta kontrola, estrategiak eta hobekuntzak lantzea, eta informazioaren segurtasunaren arloan erabakiak hartzeko gaitasuna.

Mankomunitatean honako erantzukizun hauek dituzten pertsonek osatuko dute:

- **Informazioaren arduraduna**: Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen 311/2022 Errege Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den esparruan, informazioaren segurtasun eskakizunak zehazten ditu. Ardura Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakaritzako titularrak hartuko du bere gain.
- **Zerbitzuen arduraduna:** 311/2022 Errege Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den esparruan, emandako zerbitzuen segurtasun eskakizunak zehazten ditu. Erantzukizun hau Urola Erdiko Mankomunitateko Administrazio Orokorreko Teknikariarena da.
- **Segurtasunaren arduraduna:** informazioaren segurtasunaren arloan gauzatu behar diren jarduketak planifikatuko ditu, eta egin direla ikuskatuko du. Erantzukizun hau Urola Erdiko Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren arduradunak hartuko du bere gain.
- **Sistemaren arduraduna eta sistema administratzailea:** aurreko arduradunek zehazten dituzten segurtasunaren funtzionaltasun zehatzak administratuko ditu, eta sistemaren

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

eragiketez arduratuko da. Zeregin horiek Urola Erdiko Mankomunitateko Egitura Informatikoaren arduradunarenak dira.

Informazioaren Segurtasun Batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu:

- Informazioaren Segurtasun Politika eta erantzukizun nagusiak lantzea eta erregulartasunez ikuskatzea, eta goi mailako organo eskudunak onesteko proposamena egin.
- Informazioaren segurtasunaren estrategia eta plangintza zehaztea eta bultzatzea, eta aurrekontua eta baliabide zehatzak esleitzea proposatzea.
- Informazio-aktiboek mehatxu nagusiekiko duten esposizioan gertatzen diren aldaketa adierazgarriak gainbegiratzea eta kontrolatzea, bai eta aktibo horien segurtasuna bermatzeko kontrolak eta neurriak garatzea eta ezartzea ere.
- Mankomunitatean informazioaren segurtasuna etengabe hobetzeko ekimen nagusiak sustatu eta onestea.
- Informazioaren segurtasunaren esparruan arloen ahaleginak koordinatzea ahaleginak irmoak direla, esparruan erabaki den estrategiarekin lerrokatuta daudela eta bikoiztasunik ez dutela ziurtatzeko.
- Informazioaren Segurtasun Arauak onestea.
- Informazioaren segurtasunaren ikuspegitik sistemen administratzaileen, operadoreen eta erabiltzaileen trebakuntza eta kalifikazio eskakizunak egin eta onestea.
- Mankomunitateak onartzen dituen hondar arrisku nagusiak monitorizatzea eta beren inguruan balizko jarduketak gomendatzea.
- Segurtasun gorabeherak kudeatzeko prozesuen lana monitorizatzea eta balizko jarduketak gomendatzea. Bereziki, informazioaren segurtasun gorabeherak kudeatu behar direnean segurtasun arloen arteko koordinazioa zaintzea.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

- Aldizka segurtasun auditoriak egin daitezen sustatzea, segurtasunaren arloan erakundearen eskakizunak betetzen direla ziurtatzeko.
- MANKOMUNITATEAREN informazio segurtasuna hobetzeko planak onestea. Bereziki, zainduko du arlo desberdinek gaian egin ditzaketen zenbait planen koordinazioa.
- Segurtasunaren arloan jarduketei lehentasuna ematea bitartekoak mugatuak direnean.
- Hasierako zehaztapenetik jardunean jartzen denera arte IKT proiektu guztietan informazioaren segurtasuna aintzat hartzen dela zaintzea. Bereziki, zerbitzu horizontalak sortu eta erabiltzen direla zainduko da bikoiztasunak murrizteko eta sistema guztien funtzionamendu homogeneoa babesteko.
- Arduradunen artean sor daitezkeen erantzukizun auziak ebaztea, eta erabakitzeko agintaritza nahikoa ez duenean, dagokionari bideratzea.
- Aldizka informazioaren segurtasun egoeraren berri MANKOMUNITATEKO goi mailako organoei ematea.

7.2.- Rolak: eginkizunak eta erantzukizunak

Lehendakariaren ebazpen bidez ondorengo eginkizunetan jarduteko izendapenak eta karguuzteak egingo dira.

7.2.1. Informazioaren arduraduna:

Segurtasunaren Eskema Nazionalak (SEN) zehaztutakoaren arabera, segurtasunaren arloan informazioaren eskakizunak ezartzeko ahalmena du, hau da, informazioaren segurtasun mailak zehazteko gaitasuna du.

Informazioaren arduradunaren azken erantzukizuna da informazio jakina nola erabiltzen den eta, ondorioz, babestu beharko du. Hala, bere ardurapekoa da konfidentzialtasunaren eta osotasunaren gorabeherara daraman edozein akats edo arduragabekeria.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Hona hemen bere eginkizunak:

- Informazioa behar bezala erabiltzen eta, beraz, babesten dela zaintzea.
- Konfidentzialtasunaren edo osotasunaren gorabeherara daraman edozein akats edo arduragabekeriaren azken arduradun izatea.
- Segurtasunaren arloan informazioaren eskakizunak zehaztea.
- Informazioaren segurtasun mailak zehaztea.
- Informazioaren segurtasun maila formalki onestea.

7.2.2. Zerbitzuaren arduraduna:

SENak zehaztutakoaren arabera, segurtasunaren arloan zerbitzuaren eskakizunak ezartzeko ahalmena du, hau da, zerbitzuen segurtasun mailak zehazteko gaitasuna du.

Hona hemen bere eginkizunak:

- Segurtasunaren arloan zerbitzuaren eskakizunak zehaztea, elkarreragingarritasunaren, irisgarritasunaren eta eskuragarritasunaren eskakizunak barne.
- Zerbitzuen segurtasun mailak zehaztea.
- Zerbitzuaren segurtasun maila formalki onestea.

7.2.3. Segurtasunaren arduraduna:

MANKOMUNITATEKO informazio sistemen segurtasunari buruzko eginkizunak beteko ditu, besteak beste, honako hauek: jarduketak planifikatzea eta erabakiak hartzea mankomunitateak erabiltzen dituen zerbitzuen eta informazioaren segurtasun eskakizunak betetzeko eta egin direla ikuskatzeko.

Hona hemen bere eginkizunak:

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

- Erabiltzen den informazioaren eta sistemek ematen dituzten zerbitzuen segurtasun maila egokia mantentzea.
- SENak behartzen dituen aldizkako auditoriak egin edo sustatzea eskakizunak betetzen direla ziurtatzeko.
- Informazioaren segurtasunerako Harremanetarako Pertsona (POC) gisa jardutea, beharrezkoa denean, informazioaren segurtasunak eragindako hirugarrenei emandako edo jasotako zerbitzuei dagokienez, hauek bideratzeko eta gainbegiratzeko:
    - emandako edo jasotako zerbitzuaren segurtasun-baldintzak betetzen direla,
    - informazioaren segurtasunari buruzko komunikazioak, eta
    - zerbitzu horren esparruko gorabeheren kudeaketa.
- Informazioaren segurtasunerako arriskuen analisia koordinatzea, eta horiek murrizteko behar diren kontrolen ezarpena koordinatzea.
- IKTen segurtasunaren arloan trebakuntza eta kontzientziazioa kudeatzea, Politika hau garatzen duten arau eta prozeduren hedapenean lagunduz.
- Lehendik dauden segurtasun neurriak erakundearen beharretarako egokiak direla egiaztatzea.
- Sistemaren segurtasunarekin lotutako dokumentazio guztia ikuskatu, osatu eta onestea.
- Segurtasun gertaerak kudeatzeko tresnek eta sistemaren auditoria mekanismoek ematen duten sistemaren segurtasun egoera monitorizatzea.
- Jakinarazten direnetik ebazten diren arte segurtasun gorabeheren ikerketan lagundu eta hura ikuskatzea; aldizka txostenak egitea aipagarrienak Batzordeak jakin ditzan, eta datu pertsonalen segurtasun urraketen berri ematea Datu Babesteko ordezkariari.

7.2.4. Sistemaren arduraduna:

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Sistema eragiteaz eta segurtasun funtzionaltasunak administratzeaz arduratuko da.

Hona hemen bere eginkizunak:

- Informazio-sistema garatzea, erabiltzea eta mantentzea bere bizi-ziklo osoan, zehazten denetik eta instalaziotik hasita, funtzionamenduaren jarraipena eta egiaztapena barne.
- Sistema erabiltzeko irizpideak eta zerbitzu eskuragarriak definitzea.
- Erabiltzaileak sistemara sartzeko politikak definitzea.
- Sistemaren jarduteko moduan segurtasunari eragiten dizkioten aldaketak onestea.
- Sisteman erabil daitekeen hardwarearen eta softwarearen konfigurazio baimendua zehaztea eta konfigurazioaren aldaketa garrantzitsuak onestea.
- Segurtasun-neurriak segurtasunaren esparru orokorrean behar bezala integratzen direla egiaztatzea.
- Aktiboen segurtasunaren kudeaketaren ardura duten Arduradun Informatiko pertsonalei funtzioak eta betebeharrak hautatzea eta ezartzea, definitutako segurtasun-estrategiaren arabera.
- Sistemaren arriskuak aztertu eta kudeatzea.
- Sistemaren segurtasun-dokumentazioa egin eta onestea ikuspegi teknikotik.
- SENren I. eranskinean deskribatutako prozeduraren arabera, sistemaren kategoria zehaztea eta SENren II. eranskinean deskribatutakoari jarraikiz, aplikatu behar diren segurtasun neurriak definitzea, Segurtasun arduradunarekin batera.
- Sistemaren berariazko segurtasun neurriak ezarri eta kontrolatzea.
- Sistema berriak ezartzeak eta daudenetan gertatzen diren aldaketek ezarritako segurtasun-eskakizunak betetzen dituztela bermatzea.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

- Segurtasunaren egoera monitorizatzeko prozesuak eta kontrolak ezartzea, gertatutako gorabeherak detektatu ahal izateko, eta haren ikerketa eta ebazpena koordinatzea.
- Kontingentzia eta larrialdi planak zehaztea, eta langileak ohitu daitezen maiz ariketak (probarako) egitea.
- Segurtasunaren urritasun larriak detektatzen badira eta, ondorioz, eskakizunak betetzeari eragin badiezaiekete, informazio jakinak edo zerbitzu zehatzak etetea. Erabaki hau, beste arduradunekin adostuko da hala badagokio.

7.2.5. Tratamenduaren arduraduna:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak zehaztutakoaren arabera, bakarrik edo beste batzuekin batera, tratamenduaren helburuak eta bitartekoak zehazten dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo beste erakunde bat da.

7.2.6. Datuak babesteko ordezkaria:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 39. artikuluan aurrez ikusitako eginkizunak ditu.

- Tratamenduaren arduradunari edo eragileari datu pertsonalak babestearen arloan berri eman eta aholkatzea.
- Arduradunak edo eragileak DBEO betetzen duela ikuskatzea, honako hauek barne:
    - Erantzukizunak esleitzea
    - Langileen kontzientziazioa eta trebakuntza
    - Auditoriak
- Datu pertsonalak babestearen gainean Inpaktuaren Ebaluazioei buruz aholkatzea eta aplikazioa ikuskatzea.
- Datu pertsonalak babestearen arloan kontrol-agintaritzarekin harreman-puntu gisa kooperatzea eta jardutea.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

7.3.- Auziak konpontzea

Informazioaren Segurtasun Batzordeak ebatziko ditu segurtasun rolen artean sor daitezkeen auziak edo iritzi aldeak.

Politika honetan auziak badaude edo interpretazioak desberdinak badira, lehendakariak ebatzi beharko ditu, Informazioaren Segurtasun Batzordeak proposamen txostena egin ondoren.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

8.- DATU PERTSONALAK BABESTEA

Mankomunitateak, datu pertsonalak tratatzeari dagokionez, indarrean dagoen araudiko printzipioak eta eskakizunak betetzen ditu, besteak beste, 679/2016 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalak tratatzeari buruz pertsona fisikoak babesteari dagokiona (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, DBEO) eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko. Nolanahi ere, datu pertsonalak nahiz intimitatea babesteko oinarrizko eskubidea eta legediak zein nazioarteko tratatuek eta indarreko Konstituzioak onesten dituzten gainerako funtsezko eskubideak errespetatuko dira.

Urola Erdiko Mankomunitatea bere ardurapean dauden tratamendu-eragiketetan sartutako datu pertsonalen segurtasuna kudeatzeaz eta mantentzeaz arduratuko da.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

9.- INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA GARATZEA

Ondoren, Segurtasun Politika hau eta politika osatuko duten Segurtasun Araudiak eraginkortasunez kudeatzeko, MANKOMUNITATEAK onartu behar dituen oinarrizko ildoak zehazten dira.

9.1.- Garapen-tresnak

Mankomunitatearen Informazioaren Segurtasun Politika **segurtasun araudiaren** (org.2) bidez garatuko da, lehenengoa osatzeko behar baitira. Berariaz arautuko dute arlo edo alderdi zehatzeko informazioaren segurtasuna, eta **Informazioaren Segurtasun Batzordeak** onetsiko ditu. Hona hemen, besteak beste, arauen helburua:

- Ekipoak, zerbitzuak eta instalazioak behar bezala erabiltzea.
- Bidegabeko erabileratzat joko direnak zehaztea.
- Langileen erantzukizuna honako arau hauek urratu edo betetzeari dagokionez: eskubideak, eginkizunak eta diziplina neurriak, indarreko legediaren arabera.

Segurtasunaren arduradunak jarduketa-eremu zehatzeko prozesuak, IKT prozedurak edo IKT jarraibide teknikoak onetsi ahal izango ditu.

(Politika hau garatzen duten arauen eta prozeduren katalogoa honako dokumentu honetan deskribatzen da: Segurtasun Araudia (org.2) eta Segurtasun Prozedura (org.3)).

9.2.- Segurtasun arauak onestea

Erakunde guztian segurtasunaren arau teknikoak politika honetan xedatutakoaren arabera onetsiko dira.

9.3.- Ez betetzeagatik aurreikusitako zehapenak

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Informazioaren Segurtasun Politika eta hura garatzen duten arauak ez betetzeak erantzukizunak eta zehapenak ekar ditzake. Erantzukizun horiek Urola Erdiko Mankomunitateko langile publikoei eta goi-karguei aplika dakizkieke, eta diziplina-araubideari buruzko araudian ezarritakoaren arabera gauzatuko dira.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

10.- HIRUGARREN ALDERDIAK

Mankomunitateak beste erakunde batzuetako informazioa erabiltzen duenean, Informazioaren Segurtasun Politikaren berri emango zaie, Informazioaren Segurtasun Batzordeak harremanetan jartzeko eta koordinatzeko bitartekoak zehaztuko dira eta segurtasun gorabeherei erantzuteko jardunbideak ezarriko dira.

Mankomunitateak hirugarrenen zerbitzuak erabiltzen dituenean edo hirugarrenei informazioa lagatzen dienean, zerbitzuekin edo informazioarekin lotutako Segurtasun Politika eta Segurtasun Araudia jakinaraziko zaizkie. Hirugarrenek eskakizunen mende gelditzea onetsiko dute. Gorabeherak prebenitu, detektatu, jakinarazi eta ebazteko berariazko jarraibideak definituko dira. Informazioaren segurtasunaren arloan, hirugarrenen langileak behar bezala kontzientziatuta daudela bermatuko da, gutxienez, politika honek zehazten duen mailan.

Maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren 2. artikuluari jarraikiz, SEN sektore pribatuko erakundeen informazio sistemei ere aplikatuko zaie, 12. artikuluak aipatzen duen segurtasun politika izatearen eskakizuna barne, aplikazioko araudiaren babesean eta kontratu-harremanari erreparatuz, sektore publikoko erakundeei zerbitzuak eman edo konponbideak eskuratzen badizkiete administrazio-eskumenak eta -ahalmenak erabiltzeko.

Sektore publikoko erakundeek egiten dituzten kontratuetako administrazio-preskripzioen edo preskripzio teknikoen pleguak errege dekretu honen aplikazio-eremuan sartuta badaude, kontratistak zerbitzuak emateko oinarritzat hartzen dituen informazio sistemak SENrekin bat datozela ziurtatzeko eskakizun guztiak kontuan hartuko dituzte, hala nola SENrekin adostasunari buruzko adierazpenak edo ziurtagiriak.

Zuhurtzia bera zabalduko zaio kontratisten hornidura kateari, beharrezkoa den neurrian, eta arrisku analisiaren emaitzen arabera.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Hirugarrenen batek politika honen alderdiren bat bete ezin duenean, SENaren Segurtasunaren Arduradunari txosten bat eskatuko zaio arriskuak eta tratamendua zehazteko. Txostena hori onartu beharko dute Informazioaren eta Zerbitzuen Arduradunek, baita ere Datuak babesteko ordezkariak, aurrera jarraitu baino lehen.

Bereziki kontuan hartuko da, DBLOren lehenengo xedapen gehigarriko bigarren apartatuaren arabera, “hirugarren batek zerbitzu bat ematen badu emakida bidez, kudeaketa gomendio bidez edo kontratu bidez, segurtasun neurriak jatorrizko administrazio publikoarenekin bat etorriko dira eta Segurtasun Eskema Nazionalera egokituta egongo dira”.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

11.- POLITIKA BERRIKUSTEA

Politika hau Informazioaren **Segurtasun Batzordeak proposatu eta berrikusi du.**

Politika hau Batzordeak, gutxienez, urtean behin berrikusiko du erakundean edo dagokion legedian aldaketa garrantzitsuak daudenean; politika, erakundea eta legedia bat datozela ziurtatzeko.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza Nagusia 11, 1., 2. Bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | E-posta: ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus